


Euskal AEko biztanle kopuruak gora egin du eta 10.228 pertsona gehiago daude 2023an, 2 urtez jaitsi ondoren

Hazkundera hiru lurralde historikoen artean banatzen da

Euskal AEn, 2023ko urtarrilaren 1ean, 2.196.745 pertsona daude; alegia, 10.228 pertsona gehiago (+% 0,5) 2022an baino, Eustaten datuen arabera. Hala, azken bi urteetako joera alderantzikatu da: 2022an, 6.682 pertsona gutxiago izan ziren, eta, 2021ean, 6.512.

Balio absolutuetan, populazioaren gorakadarik handiena Bizkaian izan da, 2022an baino 4.810 bizilagun gehiago baitaude (+% 0,4); ondoren, Gipuzkoan, 719.875 bizilagun baitaude, joan den urtean baino 3.259 gehiago (+% 0,5), eta, azkenik, Araban, 2.159 bizilagun gehiago baitaude, eta hala, guztira, 332.851 baitira (+0,7%).

Biztanleen piramideak. 2003 eta 2023



Analisia aldi zabalago batean eginez gero, 2003tik 2023ra bitartean, ikusiko dugu Arabak 41.813 biztanle gehiago dituela eta, beraz, % 14,4 egin duela gora biztanle kopuruak, ondoren Gipuzkoak % 6 (40.812 pertsona gehiago). Bizkaiak aldi horretan 24.170 biztanle gehiago lortu ditu, biztanleriaren % 2,2.

Euskal AEko hiriburuei dagokienez, hiruretan hazi da biztanle kopurua 2022tik 2023ra bitartean. Hazkundetik handiena Bilbon izan da, 2.029 biztanle gehiago baititu; ondoren, Gasteizen, 1.994 gehiago baititu, eta, azkenik, Donostian, 872 pertsona gehiago baititu. 2003ko datuak ikusita, Bilboko biztanle kopurua murriztu egin da azken 20 urteotan, 3.291 pertsona gutxiago baitira (–% 1), eta Donostiakoak igoera txikia izan du, 2.611 pertsona gehiago baitira (+% 1,5). Gasteizen, berriz, biztanle kopuruak gora egin du eta 30.517 pertsona gehiago dira, % 13,9 azken bi hamarkadotan (lehen 219.583 ziren eta, orain, 250.100).

Euskal AEko gainerako udalerriei dagokienez, nabarmendu behar da azken urtean 145 udalerriko populazioa berreskuratu dutela, eta 99k, galdu. Populazio-igoerarik handiena Barakaldo (479 biztanle), Santurtzi (364 biztanle), Leioa (309 biztanle) eta Sestao (282 biztanle) udalerriek izan dute, denak ere Bilbo Handia eskualdean. Jaitsierarik handiena, termino absolutuetan, Getxok izan du berriro, 199 biztanle gutxiago baititu, baina jaitsiera azken urteotakoa baino pixka bat txikiagoa izan da (–% 0,3). Elduain, Lanestosa eta Kuartango udalerriak izan dute jaitsierarik handiena ehunekotan; hiru kasuetan % 5 baino handixeagoa.

2003tik 2023ra bitartean, Portugaletek, Getxok, Basaurik eta Sestaok galdu dute biztanle gehien (Bilbo Handia eskualdeko udalerriak): guztira 16.766 pertsona. Gipuzkoan Arrasatek eta Eibarrek eta Bizkaian Ondarroak ere bakoitzak 1.000 biztanle baino gehiago galdu ditu.

Eskualdeei dagokienez, zehazki Bilbo Handiak izan du azken urtean biztanle kopuruan igoerarik handiena, 3.678 biztanle gehiago izan baititu; ondoren, Arabako Lautadak (2.076 gehiago) eta, gero, Donostialdeak (1.924 gehiago). Gainerakoetan, 20 eskualdeetako 4k baino ez dute galdu populazioa, eta guztiek ehuneko txikian: Markina-Ondarroa (143 biztanle gutxiago, % 0,6), Debabarrena (88 gutxiago, % 0,2), Arabako Mendialdeak (35 biztanle gutxiago, % 1,1) eta Añana (20 biztanle gutxiago, % 0,3).

2003. urteraino atzera egiten badugu, Arabako Lautadan izan zen igoerarik handiena, eta besteeikiko aldea nabarmena izan zen, 35.000 pertsona baino gehiagoko igoera izan baitzen; ondoren, Donostialdean, 15.742 biztanle gehiagorekin eta, gero, Plentzia-Mungian, 12.800 gehiagorekin. Bi eskualdek soilik galdu zuten populazioa: Bilbo Handia (2.720 pertsona gutxiago) eta Markina-Ondarroa (778 gutxiago).

65 urteko eta gehiagoko pertsonen proportzioak igotzen jarraitzen du Euskal AEn

Euskal AEko populazioaren batez besteko adina 2023an 45,6 urte da, Espainia osoan baino ia 2 urte handiagoa. 2003arekin alderatuta, batez besteko adina 3,4 urte igo da. Sexuen arteko aldea 3,1 urtekoa da; izan ere, gizonek 44 urte dituzte, batez beste, eta emakumeek, 47,1, adin aurreratueta emakumeen populazioaren bolumena handiagoa delako. Lurraldeetako batez besteko adinak adin-egiturak islatzen ditu: Arabako batez besteko adina erkidegokoa baino urtebete txikiagoa da (44,6 urte); Gipuzkoa batezbesteko horretara hurbiltzen da, baina azpitik dago (45,1), eta Bizkaiak gainditu egiten du, 46,1 urtekoa baita.

2023an, Euskal AEk gainditu egiten du Espainiako 65 urteko eta gehiagoko populazioaren proportzioa, Espainian % 20,1 baita eta Euskal AEn % 23,5. Hiru autonomia-erkidegok baino ez dute gainditzen ehuneko hori: Asturiasko Printzerria (% 27,5), Gaztela eta Leon (% 26,5) eta Galizia (% 26,3). Sexua kontuan hartuta,

emakumeen artean 65 urteko eta gehiagoko pertsonen proportzioa % 26,1 da eta, gizonen artean, % 20,7.

2023an, Euskal AEn 85 udalerri gaitu dute 64 urtetik gorako populazioaren batez besteko ehunekoa, eta 166k balio bera edo baxuagoa dute; besteak beste, Bilbok, Donostiak, Barakaldok eta Getxok. Udalerririk horietan Euskal AEko guztizko populazioaren % 31,8 bizi da. 2003an, 64 urtetik gorako populazioaren ehunekoa % 18,4 izan zen, eta 154 udalerri zuten batezbestekotik gorako ehunekoa. 2003tik 2023ra bitartean, 95 udalerri 64 urte baino gehiagoko pertsonen proportzioak behera egin du, baina udalerririk horietan guztizko populazioaren % 4,8 baino ez da bizi.

Euskal AEko biztanleria, lurralde-eremuen, adin-talde handien arabera. 2023/01/01

	Guztira	0 - 19		20 - 64		>= 65	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Guztira	2.196.745	399.011	18,2	1.281.696	58,3	516.038	23,5
Lurralde historikoak							
Araba/Álava	332.851	64.249	19,3	194.808	58,5	73.794	22,2
Bizkaia	1.144.019	198.250	17,3	671.528	58,7	274.241	24,0
Gipuzkoa	719.875	136.512	19,0	415.360	57,7	168.003	23,3
Hiriburuak							
Bilbao	342.484	53.884	15,7	203.466	59,4	85.134	24,9
Donostia / San Sebastian	182.641	30.546	16,7	105.374	57,7	46.721	25,6
Vitoria-Gasteiz	250.100	47.566	19,0	146.483	58,6	56.051	22,4
Eskualdeak							
Añana	6.309	1.234	19,6	3.698	58,6	1.377	21,8
Arabako Errioxa / Rioja Alavesa	11.762	2.478	21,1	6.832	58,1	2.452	20,8
Arabako Kantaurialdea / Cantábrica Alavesa	34.368	6.517	19,0	19.573	57,0	8.278	24,1
Arabako Lautada / Llanada Alavesa	268.014	51.688	19,3	157.286	58,7	59.040	22,0
Arabako Mendialdea / Montaña Alavesa	3.208	549	17,1	1.842	57,4	817	25,5
Arratia-Nerbioi / Arratia-Nervión	24.135	4.758	19,7	14.137	58,6	5.240	21,7
Bidasoa Behea / Bajo Bidasoa	77.220	14.114	18,3	44.814	58,0	18.292	23,7
Bilbo Handia / Gran Bilbao	856.313	142.921	16,7	502.577	58,7	210.815	24,6
Debagolena / Alto Deba	62.735	11.929	19,0	35.540	56,7	15.266	24,3
Debarrena / Bajo Deba	54.775	10.474	19,1	30.800	56,2	13.501	24,6
Donostialdea	330.342	59.056	17,9	192.116	58,2	79.170	24,0
Durangaldea / Duranguesado	99.295	19.135	19,3	58.405	58,8	21.755	21,9
Enkartzatzen / Encartaciones	32.055	5.731	17,9	18.891	58,9	7.433	23,2
Gernika-Bermeo	46.386	8.572	18,5	26.587	57,3	11.227	24,2
Goierrri	68.316	14.232	20,8	38.796	56,8	15.288	22,4
Gorbeialdea / Etribaciones. del Gorbea	9.190	1.783	19,4	5.577	60,7	1.830	19,9
Markina-Ondarroa	25.626	4.557	17,8	14.600	57,0	6.469	25,2
Plentzia-Mungia	60.209	12.576	20,9	36.331	60,3	11.302	18,8
Tolosaldea	49.720	10.491	21,1	28.622	57,6	10.607	21,3
Urola Kosta	76.767	16.216	21,1	44.672	58,2	15.879	20,7

Data 2023ko Urriaren 11

Iturria: Eustat. Biztanleen udal-errodaren estatistika

Alde nahikoa dago Euskal AEko udalerrien artean biztanleen adinari dagokionez, eta, zehatzago esateko, 65 urteko eta gehiagoko pertsonen ehunekoari dagokionez; hura Baliarraingo % 9,7ren eta Lagrango % 36,1en artean dago.

Lehenengoan ez ezik, beste 6 udalerririk hauek ere ehunekoa % 13tik beherakoa da: Irura, Arakaldo, Dulantzi, Astigarraga, Larraul eta Iruña Oka. 7 udalerririk horietan 16.818 biztanle daude guztira. Bestalde, Lagranek gainera, hiru dira % 30etik gorako ehunekoa duten udalerririk: Harana, Elantxobe eta Sukarrieta. Lauren artean, 1.131 bizilagun biltzen dituzte.

Eskualde-mailari dagokionez, bi eskualdetan gainditzen du 64 urtetik gorako populazioak guztizkoaren % 25. Bidasoa Beherea (% 25,5) eta Markina-Ondarroa (% 25,2). Ehuneko hori txikiagoa da, berriro ere, Plentzia-Mungian, ez baita % 19ra heltzen.

Adin aurreratuenei dagokienez, 85 urteko eta gehiagoko pertsonak 2003an % 1,9 ziren eta, 2023an, % 4,1. Baina ehuneko horren banaketa oso bestelakoa da emakume eta gizonen artean: Euskal AEn gizonen % 2,7k 85 urte edo gehiago dituzte, eta proportzio hori handiagoa da emakumeetan: % 5,5. 100 urteko eta gehiagoko populazioan, hazkunde-prozesua biziagoa izan da: 2003an adin horietako 269 pertsona zeuden eta, hogeitau urte geroago, 883; haietatik % 85,7 emakumeak dira.

Euskal AEn 65 urteko eta gehiagoko 1,7 pertsona daude 16 urtetik beherako bakoitzeko, eta, hala, gainditu egiten da Espainiako ratioa, 1,4 baita, baina, oraindik, Asturiasko Printzerrian dagoen 2,5eko erlazioetik urrun.

Eskualdeei dagokienez, Bilbo Handiak eta Arabako Mendialdeak dute proportziorik handiena: 64 urtetik gorako ia 2 pertsona 16 urtetik beherako bakoitzeko. Plentzia-Mungian erlazioa 1,1 da.

Udalerri-mailan, 88 udalerrik gainditzen dute batezbestekoa, eta muturreko kasu batzuk daude, hala nola Sukarrieta, Harana eta Lagran, 3 adindun baino gehiago baitaude 16 urtetik beherako bakoitzeko. Beste muturrean, udalerri batzuek, hala nola Baliarrain, Irura edo Arakaldo udalerriek, 0 eta 15 urte bitarteko 2 gazte baino gehiago dituzte 65 urteko eta gehiagoko pertsona bakoitzeko. 49 udalerritan 16 urtetik beherako pertsona bat dago, gutxienez, 64 urtetik gorako pertsona bakoitzeko.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62